

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2008/04/23 Arratsaldeko 16.00-18.00</p>	
---	---	---

Gaurkoa, 2008ako Eskualdeko Agenda 21eko Ingurumen lan-taldearen lehen bilera izango da. Bileraren helburua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ebaluazio programaren emaitzak aurkeztu, iaztik hona aurrera eramandakoak azaldu eta datozen bileretarako praktika onak aukeratzea izango da.

Honenbestez, lanean hasiko gara!

Honako hauek bildu gara

Koro Irazustabarrena eta Maribel Zufiaurre (Landarlan), Loli (Gueske), Luis Mari de Juan (Orkli), Iñaki Saldaña (Ezker Batua), Patxi Plazaola (Beasaingo Udala), Ioritz Imaz (Idiazabalgo Udala), Xabier Dorronsoro (Zeraingo Udala), Joanes (CCOO CAF), Iker Galpasoro eta Iker Azurmendi (Goieki) eta Leire Garmendia, Rosa Aurkia eta Zuberora Jauregi (LAIA S.Coop.).

Gaurkoan ere talde anitz eta interesgarria osatu dugu, guztion artean Eskualdeko Agenda 21eko garapenaren inguruan aritzeko!

Gaurko bileraren egitura

Gaurko bilera 3 atal nagusitan banatuko dugu:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren **Ebaluazio Programaren emaitzen aurkezpena.**
2. 2008rako plangintzaren aurkezpena: Ingurumen lan-taldetik **2008an bultzatuko diren ekintzen azalpena.**
3. **Esperientzia praktikoaren aukeraketarako** dinamika: datozen bileretan ezagutzea interesatuko litzaiguzen esperientzia praktikoaren aurkezpena eta aukeraketa.

Lehen bi puntuak informatzaileak izango dira eta hirugarrena, aldiz, talde dinamika erabiliz osatuko da.

Lanarekin hasiz...

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ebaluazio Programaren emaitzen aurkezpena:

Zer da GFaren Ebaluazio Programa? Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero Agenda 21eko Ekintza-Planaren garapen maila neurtzeko martxan jartzen duen programa. Programa honen bidez, Eskualdeko Agenda 21eko Ekintza-Plana ebaluatu da, 2006an onartu zen plan horren exekuzio maila zenbatekoa den zehaztuz.

Emaitza nagusienak: (2007ko abendua erreferentziaz hartuta)

- Ekintza- Planaren %20a dago exekutatuta.
- Oraindik ekintzen %40a hasteko zeuden.

	<p>Eskualdeko Agenda 21</p> <p>1 / 3</p>	
--	---	--

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2008/04/23 Arratsaldeko 16.00-18.00</p>	
---	---	---

- Ildo estrategikoen arabera, Hondakin Industrialak, Udalerrria/Enpresa eta Aktibitateen Tramitazio legalarekin lotuakoak dira gehienbat burutu diren ekintzak. Aitzitik, Hondakin arriskutsuak, Etxebizitza eta Biztanleriaren bultzada barruan sailkatutako ekintzak ez dira burutu oraindik.

(*Aktarekin batera Ebaluazio Programaren laburpen txostena bidaltzen dizuegu).

2. 2008rako plangintzaren aurkezpena: Ingurumen lan-taldek 2008an bultzatuko diren ekintzen azalpena.

Laburpen modura, 2008an aurrera eramango diren ekintzen eskema honako hau da:

1. Informazioa eta komunikazioa
 - Boletin elektronikoaren sorrera: hiruhilabetero banatuko da
 - Web orriaren berritzea: aurten goiekiko webgunea berri nahi da, Agenda 21eko atala ere eraberrituz.
 - Esperientzia praktikoen ezagutza: Eskualdeko Agenda 21eko Ingurumen lan-taldek bileretan beste herrietan egiten ari direna azalduko da.
 - Goierriarran haurrentzako atalaren barruan, agenda 21aren txokoa sortu da
2. Partehartzea
 - Ingurumen lan-taldearen bilerak: urtean 3
3. Sentsibilizazioa
 - Kontsumo Iraunkorra: Poltsa berrerabilgarrien banaketa
 - Aste Berdea: Ura
4. Bestelakoak
 - Mugikortasun Plana
 - Turismo Iraunkorra

Burutu behar diren ekintzen inguruko zenbait ohar:

<p>Kontsumo Iraunkorra: poltsa berrerabilgarrien banaketa</p>	<p>- Ordizia eta Beasaingo dendari elkarteekin bildu gara, arrakasta oso gutxi izan dute bilera hauek. Dendariengan interes falta al dago? - Ikastetxeen bidez banatuko dira poltsak.</p> <p>Proposamen berriak: Eroski eta Carrefourekin ere saiatu gaitzke kanpaina hau gehiago zabalduz. Dendetan kartelak jar daitezke. Hitzaldietan, foroetan etab. ere banatu daitezke poltsa hauek. Goierri telebistan iragarki bat egin daiteke.</p>
<p>Aste Berdea</p>	<p>Hitzaldiak antolatuko dira interesa eta inplikazioa agertzen duten udalengan. Honetarako deialdia egin ostean bilera bat antolatuko da interesa agertu duten udalen artean hitzaldiak antolatzeko.</p> <p>Proposamen berriak: hitzaldiak arazo edo kasu praktiko konkretuen inguruan antolatzea da jendea erakartzeko modurik egokiena. Ura falta duten herrialdetakoak ekar daitezke hitzaldiak ematera, Enpresetan ere antola daitezke hitzaldiak (CAFen galdetuko da).</p>

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2008/04/23 Arratsaldeko 16.00-18.00</p>	
---	---	---

3. Esperientzia praktikoaren aukeraketarako dinamika

Honako hauek dira datozen bileretan aurkeztuak izan daitezzen proposatzen ditugun praktika onak, aldamenean lortu duten lehentsaun mailarekin.

- Urola-kostako Mankomunitateak eta Alonsotegiko Udalak **poltsa berrerabilgarrien** inguruan eginiko kanpaina. ● ● ● ●
- Azpeitiako Udalak Landetako **Industriagunera jarritako autobus zerbitzua**.
● ● ● ● ●
- Durangoko Udalak onarturiko **ordenantza**: etxebizitzan eraikuntzan ingurumen hobekutzarekin lotutako neurriak zehazten dituenak.
● ● ● ● ●
- Andoaingo Udalean **Arau Subsidiarioen berritzean eginiko Landa eremuaren babes**, ordenazio eta erregulaziorako azterketa. ● ● ●

Beraz, hurrengo bilerarako Azpeitiako Landeta industriagunera martxan den autobus zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzen saiatuko gara.